

➤ **Mintzamen-probaren grabazioa entzutea**

Mezu elektronikoa bidali behar duzu [azterketak@ivap.eus](mailto:azterketak@ivap.eus) helbidera, zure datuak eta telefono-zenbakia jarrita. Mintzamen-saioak bikoteka grabatzen direnez, ezin izango dizugu kopiarik bidali. Beraz, IVAPEko Lakuako egoitzara etorri beharko duzu **2026ko urtarrilaren 8an** zure saioa entzutera.

Mintzamen-proba entzuteko eskaerak egiteko epea **abenduaren 31tik urtarrilaren 4ra** izango da, biak barne, **ez da onartuko epe horren aurretik edo epe horren ostean egindako eskaerarik.**

**Urtarrilaren 5ean**, mezu elektronikoz jakinaraziko dizugu zein ordutan etorri beharko duzun urtarrilaren 8an.

Mintzamen-proba entzutera etortzen zarenean, konfidentzialtasun-konpromisoaren inguruko dokumentu bat sinatu beharko duzu.